

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

IDATZIZKO AZTERKETA



1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Cloze-testa
- **Ariketa:**
 - Ondoren 50 hutsuneko testua daukazu.
 - Zenbaki bakoitzak hitza kendu dela adierazten du.
 - Aukera ezazu erantzun-orrian zenbaki bakoitzari dagokion hitza.
 - Ezer egin aurretik artikulua osorik irakurtzea gomendatzen dizugu.

TURISMO IRAUNKORRA

Beste lurralde batzuetara joan, hango jendea ezagutu, bidezidorretan eta kaleetan ___1___ paseatu, gastatu... udak horretarako eta beste askotarako ___2___ du. Urtebetez lanean etengabe ___3___ eta gero, etxeko ekonomiaren ___4___ bidaiaria bat antolatzeko tentazioa izatea ohiko kontua da, ezen turismoa gaur egun mundu osoan ___5___ fenomeno izateaz gain, gehien hazi den eta hazten ari den sektoreetako bat baita; ___6___, atzerrira egiten den bidaiakopurua ___7___ egin da Espainiako estatuan 1971 urteaz ___8___, eta Turismoaren Mundu Erakundeak, 2020 urtera bitartean, urteko ___9___ hazkuntza-indizea iragarri du.

Baina turismoak bi eratako ondorioak ditu; ___10___, herrialde askotxoren garapen sozioekonomikoan zerikusi handia du, eta herrialdeen arteko harremanak ere ___11___ dituenek, kultura desberdinak ezagutzeko ___12___ faktore lagungarria da. Herrialde askok eta askok, hegoaldekoek ___13___, itzaropentsu egin dute sektore turistikoaren aldeko apustua, garapen ekonomikorako lagungarri den aldetik, diru-sarrerak izateko, lanpostu berriak (baita beste sektore batzuetan ere) ___14___ eta eskualde guztien arteko oreka sozioekonomikoa ___15___. Nahi baino sarriagotan, ___16___, saiakera horiek alferrikakoak izan dira, turismoak modu ezegokian erreakzionatzen ___17___ aurrez jakin ezin diren gertaeren (ezegonkortasun politikoa, hondamendi naturalak, epidemiak, delinkuentzia...) ___18___. Horrekin batera, kontuan izateko modukoa da, turismotik datozen diru-sarrerak, herrialde askoren diru-iturri funtsezkoak edo behinenak, askotan ___19___ gelditzen direla «kalitatezko turismoa» eskaintzeko ___20___ diren gauzak inportatu

egin behar direlako. ___21___ ekonomiko hauek herrialde txiki, txiro eta industria ___22___ dute eraginik latzena; Karibeko eta Pazifikoko uharteetan ___23___ Hori dela eta, toki horietako hotel gehientsuenen jabeak atzerriko enpresaburuak izatea ez da kasualitatea.

Beste alde batetik, toki gehienetan gertatutako aldakuntza ___24___ izan denez, turismoaren ___25___ naturan ondorio kaltegarriak eragin ditu; besteak beste, kontrolik gabeko ___26___, itsas bazterrak hormigoizko bihurtzea eta turismo-sektorearekiko ___27___, sektore hori izaten delako askotan baliabide-iturri bakarra. Beraz, turismoak dituen eragin kaltegarriak ___28___ edota ezabatzeko, alderdi etiko, sozial eta kulturalak errespetatzeko ___29___, ingurumenaren zaintza eta irabazi ekonomikoak ___30___ zituen egitarau bat aurkez ___31___ ere eskatu zitzaion 1997 urtean Garapen Iraunkorraren Batzordeari. Honela, ___32___, kontzeptu berri bat ezagutzera eman zen, ekoturismoa edo turismo iraunkorra ___33___.

Ekoturismoa edo turismo iraunkorra bidaiak egin eta ___34___ naturalez (paisaiaz, basabereiz eta floraz) gozatzeko ___35___ ematen digun turismo mota da; ___36___, naturan ahalik eta kalte gutxien egitearen aldekoa da. ___37___, turismo iraunkorrak atseden hartzeko eta jolasteko, ___38___ jakin batez oporraldia izateko eskubidea eta, legeak ___39___ duen barrutietan bidaiatzeko askatasuna eskaintzen dio ___40___ Horren guztiaren oinarrian hauxe dago: herrien arteko harreman onari ___41___, gune turistikoetako ekonomiaren ___42___, naturarenganako errespetua, eta bertako herritarrenganako ___43___.

Ikuspegi horretatik, turismo iraunkorraren bultzatzaileek ___44___ alorretan nazioarteko komunitateari, enpresei eta gobernuei, neurriak hartu eta aplikatu ___45___ eskatu diete; besteak beste, giza eskubideak errespetatzea, prostituzioa eta haurren lana ___46___, tokian tokiko biztanleei erabaki politikoetan esku hartzen ___47___ eta turismo-sektoreko langileek lan-baldintza zuzen eta egokiagoak izateko zerbait egitea.

Azkenik, turismo iraunkorraren edo ekoturismoaren aldekoek eginiko ___48___ jarraituz, biztanleriaren diru-sarrerak gehitzea, atzerriko kapitalaren eskuetan dagoen jabetza turistikoaren kopurua mugatzea eta, ___49___, bertako talde sozialek —emakumeek eta gazteek batez ere—, herrialdeko hazkuntza ekonomikoa aprobetxatuz, ___50___ ekonomikoa lortzea eskatzen da.

FERNANDO PEDRO PÉREZ
INGURUMENAREN ARAZOAK, 2003ko iraila. (Egokitua)

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « TURISMO IRAUNKORRA »
- **Teknika:** Cloze-testa

- | | | | |
|-----------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|
| 1. a) barrena
b) barru
c) artean
d) inguruan | 2. a) bat egiten
b) aurre hartzen
c) bide ematen
d) gora jotzen | 3. a) agortu
b) jardun
c) jokatu
d) antzeman | 4. a) eskuzko
b) nolanhiko
c) barneko
d) araberako |
| 5. a) tolesturiko
b) eraikiriko
c) hedaturiko
d) metaturiko | 6. a) alegia
b) aitzitik
c) bestela
d) aurrerantzean | 7. a) gaurkotu
b) hirukoiztu
c) igorri
d) garatu | 8. a) jada
b) harrezkero
c) geroztik
d) zehar |
| 9. a) %4,3tan
b) %4,3
c) %4,3ak
d) %4,3rekin | 10. a) alde batetik
b) hala ere
c) batez beste
d) badaezpada | 11. a) hornitzen
b) ekoizten
c) eransten
d) sustatzen | 12. a) heinean
b) beharrean
c) bitartean
d) orduan |
| 13. a) hurrenez hurren
b) batik bat
c) dena dela
d) bestalde | 14. a) hausnartzeko
b) nabaritzeko
c) asetzeko
d) sortzeko | 15. a) berrargitaratzeko
b) berreskuratzekeo
c) berrerosteko
d) berresateko | 16. a) bide batez
b) besterik ezean
c) ordea
d) alderantziz |
| 17. a) baitu
b) badu
c) duenerako
d) duenetz | 18. a) trukean
b) aitzinean
c) neurrian
d) gogoan | 19. a) zorian
b) jarioan
c) ezerezean
d) boladan | 20. a) denborazkoak
b) ustezkoak
c) inoizkoak
d) nahitaezkoak |
| 21. a) Irudipen
b) Ogbide
c) Gorabehera
d) Zalantza | 22. a) hautsikoetan
b) estukoetan
c) mantsokoetan
d) urrikoetan | 23. a) adibidez
b) badirudi
c) aldi berean
d) baizik | 24. a) gainerakoa
b) erabatekoa
c) aurrekoa
d) baldintzazkoa |

25. a) iraultzak
b) errietak
c) matxinadak
d) oihuak
26. a) ebakuntza
b) luzapena
c) ustiaketa
d) itzulpena
27. a) ondasuna
b) larritasuna
c) mendekotasuna
d) xehetasuna
28. a) zartatu
b) arindu
c) kimatu
d) zulatu
29. a) ezik
b) baino
c) ez ezik
d) gain
30. a) bermatuko
b) bilakatuko
c) behartuko
d) burutuko
31. a) zitzaiela
b) ziezaiola
c) zitzatela
d) zezala
32. a) dagoeneko
b) hau da
c) are gehiago
d) bada
33. a) dioena
b) deritzona
c) dagokiona
d) dirauena
34. a) aro
b) joera
c) keinu
d) eremu
35. a) parada
b) ondarea
c) asmoa
d) iritzia
36. a) halaber
b) jarraian
c) ordudanik
d) gehienez ere
37. a) Litekeena da
b) Osterantzean
c) Ere bai
d) Hots
38. a) maiztasun
b) zenbaki
c) zenbateko
d) multzo
39. a) marrazturik
b) xedaturik
c) oharturik
d) zerraturik
40. a) gizaldiari
b) gizalanari
c) gizabideari
d) gizabanakoari
41. a) pairatzea
b) luzatzea
c) eustea
d) jasatea
42. a) hazkundera
b) higadura
c) bereizketa
d) ekimena
43. a) ezaguera
b) batasuna
c) hasperena
d) begirunea
44. a) bezainbat
b) hagitx
c) zeharo
d) gehiegi
45. a) litzaketela
b) ditzatela
c) dezaketela
d) lituzketela
46. a) desagerraraztea
b) kexaraztea
c) gogaitaraztea
d) suntsiaraztea
47. a) atontzea
b) gailentzea
c) lagatzea
d) abiatzea
48. a) eragozpenekin
b) azpiegiturekin
c) eskakizunekin
d) ordezkariekin
49. a) batetik
b) hala-hola
c) ordutik hona
d) nola ez
50. a) mintegi
b) zuzenbide
c) ongizate
d) partaide

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « TURISMO IRAUNKORRA »
- **Teknika:** Cloze-testa.
- Irakurmenaren atala gaindituzat emateko, gutxienez 30 itemi erantzun beharko die zuzen azterketariak.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	A	2.	C	3.	B	4.	D
5.	C	6.	A	7.	B	8.	C
9.	B	10.	A	11.	D	12.	D

13.	B	14.	D	15.	B	16.	C
17.	A	18.	B	19.	C	20.	D
21.	C	22.	D	23.	A	24.	B

25.	A	26.	C	27.	C	28.	B
29.	C	30.	A	31.	D	32.	D
33.	B	34.	D	35.	A	36.	A

37.	D	38.	A	39.	B	40.	D
41.	C	42.	A	43.	D	44.	B
45.	B	46.	A	47.	C	48.	C
49.	D	50.	C				

2. IDAZMENA

Ariketa: Hurrengo orrian gai bat daukazu berari buruzko zeure iritziak azal ditzazun. Gaiarekin batera, laguntza gisa, beraren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait puntu.

Oharrak: Kontuan hartu idazlana egin behar duzula, hau da, ez duela balio gauzak eskematikoki aipatzeak; alderantziz, esaten direnak azaldu egin behar dira, **konposizioa** egin behar da. Bestalde, lagungarri gisa ematen diren informazioko esaldiak beste barik kopiatzeak ere ez du balio.

Idazlanak **gutxienez 350 hitz (50 bat lerro)** izan behar ditu; beraz, gutxienero luzera eskatzen da.

Idazlana zuzendu eta baloratzeko orduan oso kontuan hartuko dira **gaiarekiko lotura, testuaren egituraketa egokia, erregistro egokia, testuaren barneko lotura, eta gramatika zuzentasuna.**

Gaia:

« ELBARRIAK ETA GIZARTEA »

Osasunerako Mundu Erakundeak ohartarazi duenez, urtean 1,2 milioi lagun hiltzen dira errepide istripuetan. Zaurituak 50 milioi inguru izaten dira eta horietatik 5 milioi inguru, elbarri gelditzen dira.

Elbarrien enplegu tasari dagokionez, estatistika datuek argi erakutsi dute ez dela legeak ezarritakoa betetzen, eta talde hori dela langabezia zerrendan lehena.

Martxoaren 14ko hauteskundeetan Urdaibaiko Elbarriak Gizarteratzeko Elkarteko lehendakariak salaketa jarri zuen, hauteskunde ontzia zegoen tokiraino ezin izan zelako gupil aulkian iritsi.

Euskal Herrian eskaintzen den telealarma zerbitzua bakarrik bizi diren edadetuei eta elbarrituei zuzenduta dago. Egunaren 24 orduetan, larrialdietarako zentroekin automatikoki konektatuta dago.

- Elbarritasuna: inor ere ez dago arriskutik kanpo.
- Elbarritasun mota desberdinak: fisikoak eta psikikoak.
- Elbarriek izan ditzaketen arazoak: langabezia, traba arkitektonikoak...
- Elbarriak gizarteratzea: zer egin den eta zer dagoen egiteko.

5

10

15

20

25

30

35

40

45

50
